



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko agorrrilaren 13ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko agorrrilaren hamahiruan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, LEKUMBERRY Xantxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2024ko agorrrilaren 9

Afitxatze eguna : 2024ko agorrrilaren 9

6. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO BI ANIMAZIO LAGUNTZAILE ENPLEGU EZ IRAUNKORREN SORTZEA

(4.2.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio, denbora ez osoko bi animazio laguntzaile enplegu ez iraunkorren sortzea eskola egunetako eguerdietan haurrak jantokian zaintzeko.

Enpleguak 2024ko irailaren 2tik 2025eko uztailaren 4ra artekoak izanen dira.

Asteko batezbesteko lanaldiak honelakoak izanen dira:

- 4.70 oren urte oso batera eramana,
- 7.30 oren urte oso batera eramana.

Enpleguak C kategoriakoak dira.

Enplegu horien betetzeko bi kontratupeko langile hartuko dira, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak betez, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jardura emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguek 373ko indize emendatuari dagokion saria eskuratuko dute.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2024ko irailaren 2tik goiti, denbora ez osoko bi animazio laguntzaile enplegu ez iraunkor sortzea, hurrenez hurren astean 4.70 eta 7.30 oreneko lanaldiarekin urte batera eramana,

- enpleguek 373ko indize emendatuari dagokion saria ukanen dutela,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari lan-kontratuak eta eranskinak izenpetzeko,

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 9

Balitzko boz kopurua : 9

ALDE : 9

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko agorrilaren 13an,

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2024/08/14an publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/08/14an.